



Euskal Herriko
Unibertsitatearen
Urrezko Domina Eusko
Ikaskuntzari emateko
ekitaldia

Acto de Concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a Eusko Ikaskuntza

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Euskal Herriko
Unibertsitatearen Urrezko
Domina Eusko Ikaskuntzari
emateko ekitaldia

Acto de Concesión de
la Medalla de Oro de la
Universidad del País Vasco
a Eusko Ikaskuntza

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zeremoniala
UPV/EHUren URREZKO DOMINA
EUSKO IKASKUNTZARI EMATEKO
ERITALDIA
CARLOS SANTAMARIA ZENTROA
GIPUZKOAKO CAMPUSA
2019ko urtarrilak 25

Ceremonial
ACTO SOLEMNE DE IMPOSICIÓN DE LA
MEDALLA DE ORO DE LA UPV/EHU A
EUSKO IKASKUNTZA
CENTRO CARLOS SANTAMARIA
CAMPUS DE GIPUZKOA

Aurkibidea | Índice


1. Patxi Juaristi, Bizkaiko Campuseko errektoreorde
jauna jarduneko idazkari nagusia
Patxi Juaristi, vicerrector del Campus de Bizkaia en
funciones de secretario general 7
2. UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko
katedradun Juanjo Alvarez jaunaren laudatioa
Laudatio del catedrático en Derecho Internacional
Privado de la UPV/EHU Juanjo Alvarez 13
3. Iñaki Dorronsoro, Eusko Ikaskuntzako presidente
jaunaren hitzaldia
Discurso del presidente de Eusko Ikaskuntza, Iñaki
Dorronsoro 21
4. Nekane Balluerka, Euskal Herriko Unibertsitateko
Errektore andrearen hitzaldia
Discurso de Nekane Balluerka rectora de la
Universidad del País Vasco 29



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea





Patxi Juaristi, Bizkaiko Campuseko
errektoreorde jauna
jarduneko idazkari nagusia

Patxi Juaristi, vicerrector del
Campus de Bizkaia en funciones
de secretario general







La Medalla de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, instituida por Acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de abril de 1983, es la "expresión del reconocimiento de la Institución a las personas físicas o jurídicas, privadas o públicas, de cualquier nacionalidad, que hayan prestado servicios extraordinarios a la misma o se hayan destacado en el cultivo de las ciencias, de las letras o de las artes", pudiéndose otorgar en las modalidades de oro o de plata.

En este sentido, a propuesta del equipo de Gobierno, el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en su sesión de 13 de noviembre de 2018, aprobó la concesión a Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos, de la Medalla de Oro de la UPV/EHU por la labor realizada en favor de la universidad vasca.

Uno de los grandes méritos de Eusko Ikaskuntza es el hecho de que, desde el mismo momento de su constitución, en el Congreso de Oñati de 1918, alentara e impulsara un importante movimiento reivindicativo en favor de una universidad vasca.

Ese mismo año, bajo el título "Pro Universidad Vasca», Angel de Apraiz escribió el primer manifiesto a favor de una universidad vasca, y Eusko Ikaskuntza hizo suya esta reivindicación, movilizandoo a personalidades relevantes de la intelectualidad del mo-

mento para reclamar la creación de la Universidad Vasca.

A partir de este primer congreso, el impulso de la enseñanza y, concretamente, el impulso de la enseñanza superior ha sido una constante en el devenir de Eusko Ikaskuntza. Además de trabajar en favor de una universidad vasca, en su primer congreso se fundó Euskaltzaindia, se sentaron las bases teóricas de las futuras ikastolas, y se encargaron los primeros textos escolares en euskera.

Eusko Ikaskuntza no solo tomó conciencia y propuso la necesidad de crear una universidad vasca, sino que trabajó para superar la negativa de los distintos gobiernos que desconfiaban de una Universidad en el País Vasco.

En el difícil contexto sociopolítico anterior a la Guerra Civil, Eusko Ikaskuntza intentó suplir la falta de una universidad vasca organizando actividades relacionadas con las distintas áreas de conocimiento.

Eusko Ikaskuntza no era una universidad que ofreciera docencia superior reglada, pero actuó, en muchos casos, como si lo fuera: organizó cursos, congresos o conferencias de alto nivel académico, asumió la publicación de revistas científicas como el Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore y de la Revista Internacional de los Estudios Vascos (RIEV), y otorgó becas y pensiones para impulsar la educación superior y el conocimiento.

También impulsó la investigación como si fuera una verdadera universidad. En este sentido, no se pueden olvidar los trabajos etnográficos y de prospección arqueológica realizados por Azkue, Barandiarán, Aranzadi o Eguren.

Hasiera-hasieratik, gainera, Eusko Ikaskuntzak bazekien ezagutzaren arloan



zein garrantzitsua zen nazioartera zabaltea, eta, horrela, Europako unibertsitateekin eta zientziaren arloko goi mailako hezkuntzako erakundeekin harremanak landu zituen, mundu mailan euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko interesa piztuz eta nazioartean hedatutako intelektuaren sarea sortuz. Eusko Ikaskuntzak munduan jarri zuen euskal kultura eta euskara.

1923an, Primo de Riveraren diktadurak isilarazi egin zuen mugimendu hori, baina, ondoren, 1931n, II. Errepublikarekin, berpiztu egin zen euskal unibertsitate baten aldeko aldarrikapena, eta lehendik egingako lanari esker, eta II. Errepublikaren testuinguru soziopolitiko baikorragoan, 1936ko euskal unibertsitatea sortu zen; 1937an, Francoren tropek Bilbo hartu zutenean, bertan behera geratu zena.

XX. mendean, euskal gizarteak politikaren arloko hainbat jazoera bizi izan zi-

tuen; besteak beste, bi diktadura eta Gerra Zibil bat, euskal unibertsitatea sortzeko oztopo izan zirenak. Dena dela, inolako zalantzarik gabe, Eusko Ikaskuntzak beti agertu da Euskal Herriarentzako goi mailako hezkuntzaren eta ikerketaren alde.

Gehiago esan daiteke: XX. mendearen hasieran Eusko Ikaskuntzak aldarrikatzen zuen unibertsitate ereduak eragina izan zuen egungo UPV/EHUren egiturari eta antolaketari. Ezin dugu ahaztu 1918an Eusko Ikaskuntzak aurkeztu zuen unibertsitatearen egitasmo hark hego Euskal Herriko probintzia guztietan zituela ikastegiak, baina zuzendaritza bakarrarekin, eta ikerketa eta nazioarteko hedakuntza zituela ardatz.

Euskal Herriko Unibertsitatea hainbat ekimen eta proiekturen fruitu da, baina gure unibertsitate honetan agerikoak dira Eusko Ikaskuntzak bultzatu zuen uniber-

tsitate-ereduaren ezaugarriak eta euskal unibertsitatearen alde egindako lanen ondorioak, eta hori guztia jendurrean aitortu nahi dugu eta eskerrak eman.

Baina Eusko Ikaskuntza ez da iraganeko kontua UPV/EHUrentzat: zientziaren eta kulturaren arloko erakundea izanik, Eusko Ikaskuntzak badu, egun ere, lotura sendorik UPV/EHUrekin.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle asko Eusko Ikaskuntzako bazkide dira eta erakundearen gobernu eta kudeaketa organoetako parte hartzen dute, ezagutzaren sareak zabaltzeko lana bultzatuz.

Gainera, UPV/EHUK eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmenak dituzte sinatuta graduondoko eta etengabeko ikastaroak eskaintzeko elkarrekin.

Laburbilduz, begi-bistakoa da Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko Unibertsitateari eman dion laguntza eta egun ematen diona; eta, zalantza gabe, uste dugu mezezi duela UPV/EHUren Urrezko Domina.

Eta nik, Patxi Juaristik, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko Campuseko errektoreordeak, idazkari nagusiaren ordean, horren guztiaren fede ematen dut Donostian, 2019ko urtarrilaren 25ean.





UPV/EHUko Nazioarteko
Zuzenbide Pribatuko katedradun
Juanjo Alvarez jaunaren laudatioa

Laudatio del catedrático
en Derecho Internacional Privado
de la UPV/EHU, Juanjo Alvarez







Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andrea eta mahaikideok;
Eusko Legebiltzarreko presidente andrea;
Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente andrea;
Ibarretxe lehendakari jauna;
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu andrea;
Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari andrea;
Eusko Ikaskuntzako presidente jauna; errektore jauna;
herri-agintariak; jaun-andreok; lagunok.

Este reducto de libertad vital y profesional que constituye la cátedra universitaria ofrece pocos encargos tan gratificantes como el del honor que supone como universitario asumir la condición de padrino de Eusko Ikaskuntza y realizar esta Laudatio en el marco del acto solemne de imposición de la medalla de oro de la UPV/EHU a Eusko Ikaskuntza, tratando así de cumplir el cometido académico propuesto por nuestra rectora y su equipo, a quienes agradezco su invitación y su encargo.

Mis primeras palabras en este acto están revestidas de emoción, de gratitud, de sincero agradecimiento:

Eskerrik asko Eusko Ikaskuntzari: sustatzen dituen giza baloreekin, gure gizartea eta gure Herria hobetzen laguntzen duelako; zubiak egiten laguntzen duelako eta, horrela, kultura bat, hizkuntza bat, historia bat komunean duten lurralde senideak hurbiltzen dituelako.

La efeméride del Centenario de Eusko Ikaskuntza merece un sincero reconocimiento por parte de la sociedad y las instituciones vascas. Hoy rinde honor a Eusko Ikaskuntza nuestra Universidad pública. Este sincero y merecido reconocimiento ha de servir para mirar al pasado, aprender de experiencias ya vividas y alimentar la esperanza en el futuro. Sin caer en la autocomplacencia, sin dormirnos en los laureles, sin confiar en que la inercia resuelva nuestros serios problemas, haciendo una prospección como la que sus precursores impulsaron hace 100 años, los vascos y las vascas debemos poner las luces largas y pensar qué sociedad queremos para futuras generaciones, cómo debemos construir colectivamente nuestro futuro.

El reconocimiento institucional que hoy se solemniza mediante la imposición de la Medalla de oro de la UPV/EHU se sustenta en motivos de agradecimiento que superan la ya de por sí importante efeméride del centenario; si hubiera que fundamentar moti-

vadamente el listado de méritos sin duda el primero de ellos queda vinculado a la reivindicación universitaria y a la gestión realizada por parte de Eusko Ikaskuntza para avanzar hacia la creación de una universidad vasca.

En 1979, refiriéndose a esta cuestión, decía Mitxelena que el alumbramiento de nuestra universidad se produjo “tras una noche demasiado larga”. Hacía alusión al larguísimo tiempo que tuvo que transcurrir hasta la creación de nuestra “Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco”.

En la coyuntura actual tenemos motivos para admirar la actuación histórica de Eusko Ikaskuntza, capaz de aunar criterios y de concertar voluntades inicialmente distantes. La propuesta de universidad realizada por la Sociedad fue obra de personas de cultura dotadas de gran sensibilidad política, que fueron capaces de consensuar un proyecto válido para un país fragmentado.

Con el advenimiento de la Sociedad de Estudios Vascos la reivindicación universitaria cambió de manos; pasó de ser una petición de impulso institucional a convertirse en una reclamación principalmente liderada por intelectuales y profesorado universitario. Este hecho hizo que el debate mutase de tono y se enriqueciera. Monreal dirá que “el debate sobre la universidad habido en los años veinte en el seno de la EI-SEV ha sido el único de relieve que se ha producido en este siglo [XX]”.

La Sociedad de Estudios Vascos conocía el valor de la enseñanza superior y de la investigación, su importancia para el cultivo de la cultura propia y para el progreso económico. Fue una generación excepcional que luchó inteligentemente por sumar voluntades a todos los niveles, situando la cuestión universitaria en el centro del debate. Eusko Ikaskuntza supo aglutinar ideologías diversas, desde un planteamiento supra-

partidista, inclinándose siempre por propuestas graduales y realistas. En medio del tumultuoso panorama político y social de la preguerra, tuvo la habilidad de movilizar a la sociedad y de ganarse la confianza de las instituciones. Supo además tratar adecuadamente la cuestión territorial en un país desarticulado como lo era el vasco, integrando con inteligencia la dimensión interprovincial y transfronteriza de la cultura vasca de la época.

El 18º Congreso ha sido expresión del carácter de punto de encuentro de Eusko Ikaskuntza para personas con plurales sensibilidades e intereses en torno a preocupaciones, ideas y sentimientos compartidos. Es así como desde el ámbito que nos es propio –el pensamiento, la investigación y el debate abierto entre la “academia” y la sociedad civil en un bucle de mutua realimentación que moviliza el conocimiento–, contribuimos a la transformación creativa de la sociedad. En definitiva, al desarrollo íntegro de las comunidades vascas.

Eusko Ikaskuntza lleva un siglo anticipando análisis sociales y culturales; promoviendo reflexiones y propuestas innovadoras; difundiendo saberes; atendiendo a carencias tanto en los territorios como a nivel local; generando debate; estimulando la creatividad. De todas estas y de otras maneras las mujeres y los hombres de Eusko Ikaskuntza han contribuido, individual y colectivamente, a la Comunidad Vasca Global. Y la sirven hoy en que Eusko Ikaskuntza, fiel al cometido para el que nació, busca aportar respuestas eficientes a las preocupaciones, inquietudes y desafíos a través del estudio de Euskal Herria y de su cultura en las complejas coordenadas del mundo actual.

Capacidad vertebradora del País por parte de Eusko Ikaskuntza: De las “Islas Vascongadas” de Adrian Celaya al propósito de vertebrar Euskal Herria como realidad cultural.



Reto de país, como sociedad, por encima de ideologías.

Sentsibilitate, ideologia eta lurralde guztietako euskaldun eta euskalari guztiak batu eta zientziaren, kulturalaren, berrikuntzaren eta aurrerapen kolektiboaren alde konpromisoz lanean jartzeko duen gaitasuna. Diziiplina anitzekoa, lurralde askotako solaskidea, batzeko gaitasuna duena, ikuspegi integratzaile duna, parte-hartzean oinarritutako metodologia darabilena... Eusko Ikaskuntza, 2.500 inguru bazkiderekin, gizarte zibilaren laborategia dela esan daiteke. Bertan, jendeak bat egiten du, gizarte-erantzunen bila ikasteko, jendarteratzeko, prestatzeko eta lana egiteko, begirada epe laburretik eta denoi eragiten diguten erabakiak baldintzatzen eta mugatzen dituen taktizismotik harago jarritz.

Asmoz ta Jakitez: pensamiento y saber como motor de innovación social:

Recordar el lema de los Aulestia que enmarca la labor socio-cultural de Eusko ikaskuntza-Sociedad de Estudios vascos:

«Bekoak goikoa eskondu leidi ta txikiak handi benzi leidi asmoz ta jakitez».

«El de abajo al de arriba alcance y el pequeño al grande venza por el talento y el saber»

Euskadi, sociedad innovadora: para que una sociedad sea innovadora es preciso que haya, entre otros, un reconocimiento colectivo hacia el valor del esfuerzo, la creatividad, el emprendizaje, curiosidad, asunción de riesgos, una cultura del ensayo y del error. No podemos contentarnos con una sociedad subvencionada, instalada cómodamente en las rutinas o en lo sabido. Uno de nuestros principales desafíos consiste en generar una cultura inquieta y despierta, algo que en general nos ha caracterizado siempre a los vascos y a las vascas (a la sociedad vasca?), y que actualmente se sitúa



como una exigencia para todas las sociedades avanzadas. Los cambios acelerados de nuestro entorno nos obligan a innovar, especialmente teniendo en cuenta que no somos un país de recursos materiales sino de imaginación y creatividad.

Eusko Ikaskuntza y su pedagogía social en favor del impulso del conocimiento.

La verdadera riqueza de las sociedades reside en su saber. La apelación a la sociedad del conocimiento y la innovación deberían convertirse en un horizonte perseguido con tenacidad, desde las instituciones y con la colaboración de quienes tienen alguna responsabilidad en ello, tejiendo así una gran red que ponga en la misma dirección a las instituciones políticas, económicas y educativas, los sectores público y privado. El paso hacia la sociedad del conocimiento consiste, sobre todo, en darnos cuenta de que la energía de los talentos es incomparablemente superior a la fuerza de la materia y de

todas sus posibles transformaciones. El dinamismo de la creación de riqueza surge de la innovación de conocimientos. La mejor inversión es ahora la educación, el aprendizaje y la investigación.

Vivimos efectivamente en una sociedad descompensada: entre la euforia tecnocientífica y el analfabetismo de valores cívicos, entre la innovación tecnológica y la redundancia social, entre cultura crítica en el espacio de la ciencia o en el mundo económico y un espacio político y social donde se innova poco, donde hay una escasa capacidad para articular el equilibrio entre consenso y disenso, para canalizar los conflictos y diseñar modelos de convivencia.

Los contextos sociales complejos como el actual exacerbaban la búsqueda de soluciones individuales, del «sálvese quien pueda», de la vuelta a la autarquía. Con frecuencia, la crisis gripa el motor de nuestra solidaridad y nubla el horizonte futuro, incapaz de ser visio-

nado por encima de las aspiraciones individuales de cada persona. Y en este catártico y duro contexto, Eusko Ikaskuntza debe elevar el listón de la generosidad vital, social e intelectual, para ser capaz de ilustrar desde la humildad y el conocimiento a esta sociedad, aportar reflexiones que permitan civilizar colectivamente ese futuro de nuestra sociedad vasca. El significado profundo de los valores que dieron origen a la fundación de Eusko Ikaskuntza ha de estar más presente que nunca. Mantener nuestras señas de identidad, ser fieles al legado histórico recibido no ha de ser fruto de la mera inercia, sino el justo reconocimiento a quienes supieron adelantarse a su tiempo.

El gusto por el trabajo bien hecho, el ejercicio de responsabilidad individual y colectiva

en beneficio del bien social común son valores a preservar y revalorizar. El altruismo intelectual, alejado de egos y vanidades individuales, la visión compartida de un proyecto ha de seguir siendo referente de nuestro actuar. Vivimos un presente acelerado, sin tiempo para la reflexión y el debate sosegado.

La razón de ser de Eusko Ikaskuntza impulsa hoy día la exigencia de seguir siendo fieles a nuestro pasado, a nuestros fines y objetivos, y proyectar ese amor hacia el país, ese deseo de ser útiles al país desde nuestra aportación reflexiva, serena, constructiva anclada en el presente e impulsada hacia la creación de campos de reflexión que aporten esperanza, ilusión, motivación, espíritu de mejora y superación.



Eusko Ikaskuntza ha trabajado siempre desde la humildad intelectual, gestando proyectos útiles para la sociedad vasca, convertidos ahora en realidades autónomas y que desarrollan su papel creador en áreas como el Derecho, la cultura, las ciencias o el euskera. La omnisciencia queda para los sabios. Por ello, trabajar en auzolan, poner en común nuestros atomizados conocimientos al servicio de un objetivo social común, ha sido seña de identidad y dique frente a individualismos que frenen la visión conjunta de país y la interdisciplinariedad necesaria para avanzar en un proyecto común, coordinado desde lo heterogénea, desde la diversidad de concepciones y de conocimientos.

Hankak lurrean eta burua ondo jantzia leku askotan. Jakinduria eta apaltasuna neurri berean dituen. Bere kasuan betetzen da Joxe Migel Barandiarani bere amak etxe-atzeko sagar ondoari begira esan ziona: «Ikusten duzu sagar ondoa (frutuz betea), zu horrelakoa izan behar duzu. Zenbat eta jantziagoa eta orduan eta apalagoa».

El movimiento científico y su desarrollo ha alcanzado cotas de enorme complejidad y perfección, pero los principios que alentaron la creación de la Sociedad, animan y dan cuerpo en nuestros días a cuantas actividades promueve y realiza para mejorar los conocimientos y enriquecer al individuo en su ámbito personal y social. El paralelismo entre las circunstancias del nacimiento de Eusko Ikaskuntza y el contexto social actual, y el hecho de que aquel proyecto se fundamentase en bases metodológicas y en planteamientos que hoy han adquirido una primacía ideológica impensable hace unas generaciones debe servir para incentivar nuestra laboriosidad. Ojalá sea así, y el modelo de Eusko Ikaskuntza subsista al menos otros 100 años más. Será la prueba de un trabajo de reflexión más necesario que nunca.


Y por todo lo expuesto, solicito se proceda a imponer a Eusko Ikaskuntza la Medalla de Oro de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

Eta azaldutako guztiagatik, Eusko Ikaskuntzari Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina ematea eskertzen dut.



Iñaki Dorronsoro,
Eusko Ikaskuntzako presidente
jaunaren hitzaldia

Discurso del presidente
de Eusko Ikaskuntza,
Iñaki Dorronsoro







Euskal Herriko Unibertsitateko errektore andrea,
Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente andrea,
Ibarretxe lehendakari jauna,
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu andrea,
errektore andrea;
Eusko Legebiltzarreko presidente andrea,
Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari andrea,
Adiskideok,

Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenerako amaiera bikaina izan da Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina jaso izana. Ez zegoen bukaera hoberik asmatzerik, gure erakundearentzat hain garrantzitsua eta oparoa izan den urte hau ixteko: hemen, unibertsitatean, hezkuntza-komunitateko kideon aurrean, Euskal Unibertsitate Publikoa eraikitzeke tresna eta eragile izan zen Eusko Ikaskuntza martxan jarri zuten haiek omentzen...

Esanahi handiko ekitaldia dugu hau eta, gainera, laster ospatuko dugun beste urteurren bati loturik dator: EHUren sorreraren 40.ari.

Honenbestez, egun gogoangarria izango da gaurkoa Eusko Ikaskuntzaren ibilbide luzean, bai edukiagatik bai sinbolismoagatik. Eskerrik asko hona iristen lagundu duzuen denoi.

He de agradecer, por supuesto, a Juan José Álvarez Rubio por su laudatio. Palabras tan precisas, amplias y elogiosas... me dejan literalmente sin palabras. ¿Qué más puedo añadir yo sin caer en la reiteración? No va a ser fácil, pero intentaré aportar algo nuevo.

Antes de entrar en materia, deseo recordar a los siete socios de Eusko Ikaskuntza que han recibido la Medalla de Oro de la UPV en años anteriores. Fueron: Eduardo Chillida Jantegi, Ignacio M^a Barriola, Francisco Yarza, Manuel Agud Querol, Juan José Goiriena de Gandarias, Pedro Miguel Etxenike y Benito Lertxundi. De todos ellos se podrá decir a partir de hoy que han sido doblemente reconocidos con este prestigioso distintivo: a título individual y como miembros de nuestra Sociedad.

*

Álvarez irakasleak gogoratu digunez, euskal gizartearen desira edo, hobeto esanda, premia larri batek bultzatuta sortu zen, 1918an, Eusko Ikaskuntza: Europako unibertsitate nagusien parera iritsiko zen unibertsitate publiko bat sortzea. Izan ere, erakundeko zenbait kide unibertsitate europar haietan ikasiak ziren, eta harremanak zituzten haiekin.

Premiazkoa zen ikerkuntzan eta goi-mailako ikasketetan euskara normalizatuko zuen unibertsitate bat, gure herriaren garapen materiala eta intelektuala bultzatuko zuena. Bestalde, talentu-ihesa geldiarazi beharra zegoen.

Nola zitekeen, izan ere, hainbeste ikasle zituen herri aberats batek goi-mailako



irakaskuntza publikorik ez izatea? Eusko Ikaskuntza sortu eta handik gutxira, kanpoan ikasten ari ziren Hegoaldeko euskal ikasleen lehen errolda, gutxi gorabeherakoa, egin zuen erakundeak: bostehun bat ikasle zebiltzan Espainiako eta Europako 16 unibertsitatetan; zehazki adierazita, 30 emakume eta 467 gizon. Ikasle haietatik, % 70 baino gehiago Bizkaikoak eta Nafarroakoak ziren; ikasgaiei zegokienez, berriz, Medikuntza eta Zuzenbide fakultateek berenganatzen zuten matrikularik gehien.

Arazo hari aurre egiten saiatu zen Eusko Ikaskuntza: errealismoa, elkarrizketarako gaitasuna eta alderdi guztiek Espainiako Gorteetan zituzten diputatuen partaidetza baliatuz, gogor egin zuen lan, estatuaren erakunde guztietan, Euskal Herrirako unibertsitate-barruti propioa lortzearen.

Hona hemen zer ondorio plazaratu ziren Eusko Ikaskuntzaren bigarren Biltzarretik (Eusko Ikaskuntzak berak antolatutako lehena, 1920an egina):

«Gure kultura eta aurrerabide intelektuala sustatuko dituen unibertsitate bat sortzeko baimena eskatu behar zaie botere publikoei, ahalmen ekonomikoa nahikoa baitauka Euskal Herriak Euskal Unibertsitate bat antolatu eta mantentzeko, han egin daitezten ikerketa zientifikoko goimailako ikasketak, bai eta profesionalak zein fakultatiboak ere, barne direla gaur egun Eskola Bereziak deritzenek ematen dituztenak eta irakasleak prestatzekoak».

Euskal Herriak ia aho batez aldarrikatzen zuen nahi hori politikoki kudeatzeaz arduratu zen Eusko Ikaskuntza, eta, aldi berean, etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen atariko eta abangoardia gisa, Akademia eraikitzeke egiturak prestatuz joan zen.

Sail zientifikoak antolatu ziren, eta euskara-katedrak sortu gure herrian eta kanpoan; metodologiari eta goi-kulturari buruzko ikastaroak programatu ziren, non nazioarteko zenbait irakasle ospetsuk hartu baitzuten parte; 1927tik aurrera,

berri, Udako Ikastaroak jarri ziren mar-txan —Zaragozakoekin batera, Espainiako estatuko lehenbizikoak— eta, etorkizu-neko fakultateen mintegi gisa edo, Giza Zientzien laborategiak eta Ikerketa Zien-tifikoen Zentro bat sortu ziren, besteak beste.

Primo de Riveraren diktadura-garaian, berri, kinka larrian egon zen Eusko Ikaskun-tzaren biziraupena; gero, Bigarren Erre-publikaren garaian, Estatutuaren gaia gailendu egin zitzaion Unibertsitateare-nari. Autogobernu-aukera berriak ikusi-rik, Autonomia Estatutua onartu arte itxa-rotea erabaki zen eta, hura oinarri hartuta, unibertsitate-sistema propio bat eratzea. Jakingo duzue, proiektu hark ez zuen aurrera egiterik izan. 1936ko azaroan Uni-versidad Vasca/Euzko Irakastola Nagu-sia sortu zen, baina ez zuen luzaro iraun, 1937ko ekainean armen bidez isilarazi baitzuten.

Eusko Ikaskuntza nació hace cien años para crear la universidad vasca. Pero también para muchísimas otras cosas. A la manera del mandato de Cristo a Pedro que dio origen a la Iglesia cristiana, en la voluntad de las Diputaciones de Araba, Bizkaia, Gi-puzkoa y Nafarroa, como fundadoras de Eusko Ikaskuntza, estaba el asentar una piedra basal sobre la que edificar la moderna Vasconia.

De tal modo que, hace cien años, veía la luz Eusko Ikaskuntza para promover el desarrollo de estructuras de autogobierno; para constituir y vitalizar la siempre apla-zada Academia de la Lengua Vasca y para catalizar socialmente el euskera; para dar bases teóricas a la escuela pública bilin-güe y proporcionarle todos los medios ma-teriales necesarios; para impulsar la inves-tigación en los más variados campos del saber; para la defensa del patrimonio y la creación artística; para poner en valor las

artes populares; para atender a las necesi-dades más urgentes de sectores producti-vos rezagados como el agropecuario o el arrantzale; para asistir a las administracio-nes municipales en orden a su armoniza-ción legal y a la cooperación intermunicipal; para combatir el analfabetismo, las pande-mias y otras lacras sociales.

No es necesario más para hacerles ver las in-mensas necesidades, muchas de ellas abso-lutamente perentorias, que había en nues-tro país hace un siglo. De ahí viene el que, desde su mismo origen, nuestra institución desarrollase un cierto complejo de Argos, el gigante de los cien ojos siempre despierto y en atenta vigilancia a cuanto sucede a su alrededor. Aunque, dada la magnitud de la tarea que se le encomendó, incluso los cien ojos de Argos serían pocos para este gigante aún recién nacido.

Jakina, denboraren poderioz zehaztu, bi-deratu eta zedarritu ziren eginkizunak. Gerra Zibilak eta haren ondoren eto-rrri zen diktadurak eten historikoa eragin zuten, erabakigarria erakundearen bi-lakaerarako. Ia mendebeteko gure ibilbi-deak ondo bereizitako bi garai ditu, beraz: 1918tik 1936ra artekoa eta 1978tik gaur-dainokoa.

1936ko udara arte, eredugarria izan zen Eusko Ikaskuntzaren ahalegina, era as-kotako jendea biltzeko zuen gaitasuna-gatik eta pluralismoagatik. Hori zela eta, erakundearen jardura eteteen askok pentsatu zuten gau oso iluna zetorkiela euskal kulturari eta, oro har, Euskal He-rririari. Eta halaxe gertatu zen.

1978tik aurrera, “basamortuko ibilbide” luze hura jada amaitua zela, berpiztu egin zen Eusko Ikaskuntza, gizartearen-tzat ezinbesteko bihurtu zuten balio histo-riko haiek berreskuratzeko irrika biziz. Bis-takoa zen, baina, bere protagonismoa ez

zela izango jada gerra aurretik izan zuen bera. "Zentzatzea" egokitu zitzaigun, gazte kaskarin samarrei bezala, eta aurrerantzean zertan jardun behar genuen erabakitzea.

Euskal unibertsitateekin harremanetan jarri zen Eusko Ikaskuntza, eta lankidetzaro oparoari ekin haietan lan egiten eta ikasten dutenekin. Bereziki aipatu nahi nuke zeregin horretan Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izandako bi lagunen lan izugarria: Gregorio Monreal irakaslearena —errektore izan zen 1980tik 1986ra eta Eusko Ikaskuntzako presidente 1992tik 1996ra— eta Juan Jose Goiriarena de Gandarias irakaslearena —errektore izan zen 1991tik 1996ra, eta kargu honetan nire aurrekoa, 1997tik 2002ra—.

Lehenbiziko mendea jada betea dugula eta azken urteotako lanaz harro, uste dut euskal ekosistema kulturalen eta zientifikoan leku bat zor zaigula.

Izan ere, euskal gizartearen adimen kolektiboa hedatzeko akuilua da Eusko Ikaskuntza, unibertsitateko ezagutza formalizatuak eta gizarte zibilak sortzen duenak bat egiten duten topagunea; eta elkarlan horretaz baliatuta, zenbait proposamen, gogoeta eta proiektu sustatzen ditu, erakundeak eta eragile sozialak elikatzeke.

Entidad de estudio, de estímulo a la investigación y de movilización del conocimiento en torno a la sociedad vasca, Eusko Ikaskuntza ofrece un espacio de pensamiento y acción supraterritorial en torno a necesidades fundamentales, problemáticas actuales y retos de futuro de la sociedad de la que emerge.

Para esto, posee importantes fortalezas: una amplia y diversa masa societaria, pluriterritorialidad, reconocimiento de todas las Ad-

ministraciones, arraigo a nivel local, una de las más grandes plataformas de documentación en Red, etc.

En un país necesitado de factores vertebradores y de elementos transversales que superen las divisiones administrativas y atiendan con visión global a nuestras fortalezas y debilidades, una de sus funciones fundamentales ha de seguir siendo la de tender puentes y generar sinergias entre instituciones y agentes sociales de Vasconia.

El reciente XVIII Congreso de Estudios Vascos constituye, a día de hoy, la mejor expresión de esta labor. Lo que imaginamos como un espacio de cooperación y de trabajo en común entre el mundo académico, las instituciones, los agentes sociales y culturales y la ciudadanía de todos los territorios, ha fructificado en polo de generación de ideas, análisis y propuestas sobre las que habrá de ahondarse en años venideros. En esta línea, es preciso recordar que en el Libro Blanco del (de los) territorio(s) de Vasconia presentado en sociedad el pasado 23 de noviembre, se recogen 133 propuestas y líneas de trabajo por parte de más de 1.200 personas que han participado en los procesos de deliberación estratégica de estos últimos tres años.

Igual que hace cien años, Eusko Ikaskuntza hoy tiene tareas y compromisos claros para al menos los próximos cuarenta años.


Horixe da gure eremutik (hau da, «akademiararen» eta gizarte zibilaren artean ezagutza mobilizatzen duen elkar elikatzeke eztabaida irekiaren, pentsamendua- ren eta ikerketaren eremutik) gizartearen eraldaketa sortzaileari egiten diogun ekarpena. Azken batean, euskal komunitateen garapen osoari egiten diogun ekarpena da, jakinik unibertsitatearen laguntzarik eta zuzeneko esku-hartzerik



gabe ezinezkoa litzatekeela helburu hori lortzea.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina pizgarri bikaina da norabide horretan aurrera jarraitzeko. Ez da lantegi erraza, baina bai premiazkoa, eta bat dator sortu zenean, 1918aren amaieran, Eusko Ikaskuntzari esleitu zitzaion eginkizunarekin.


Eskerrik asko.





Nekane Balluerka,
Euskal Herriko Unibertsitateko
errektore andrearen hitzaldia

Discurso de Nekane Balluerka
rectora de la Universidad del País Vasco







Eusko Legebiltzarreko presidente andrea;
Gipuzkoako Batzar Nagusietako
presidente andrea;
Ibarretxe lehendakari jauna;
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu
andrea;
Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko
eta Erakundeekiko Harremanetako
kontseilari andrea;
Eusko Ikaskuntzako presidente jauna;
Nafarroako Unibertsitate Publikoko
errektore jauna;
Alvarez irakaslea;
herri-agintariak; jaun-andreok; lagunok.

UPV/EHUren Urrezko Domina gure unibertsitatearen aitortza bat da, 1985. urtean sortu zena. Horren bidez, gure unibertsitateak bere esker ona adierazi nahi die erakundeei zein pertsoneri, bai, unibertsitateari egindako ekarpenengatik, bai, bereziki zientzien, letren edo arteen arloan izandako ibilbide oparoarengatik.

Aurreneko domina hura Eduardo Chillida artista handiari eman zitzaion, 1985an, eta orduz geroztik, 19 erakunde edo lagunek jaso dute.

Gaur, ordea, Eusko Ikaskuntzari egiten diogun aitortzaren bidez, nolabait, euskal unibertsitate publikoak elkarte ho-

nekin zeukan zor historikoa kitatzen du. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreran Eusko Ikaskuntzaren bultzada dago. Horregatik, hain zuzen ere, giza legezkoa iruditu zaigu, bere mendeurrena ospatzen dela aprobetxatuta, UPV/EHUren urrezko domina erakunde honi ematea.

Edonola, aurrera jarraitu aurretik, Juanjo Alvarez irakasleari egin duen laudatioa eskertu nahi diot. Bere gorazarre horretan, ezin hobeto gogorarazi baitizkigu Eusko Ikaskuntzak gure unibertsitateko Urrezko Domina jasotzeko dituen merezimenduak.

Nola edo hala, Eusko Ikaskuntzaren bizitza eta euskal unibertsitate publikoaren proiektua elkarren ondoan joan dira.

Hain zuzen, Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen. Angel de Apraiz jaunaren hitzaldi bat dugu euskal unibertsitate publikoaren lehenengoetako aurrekaria eta bultzatzailea. Bilbon emandako hitzaldi haren izenburua "Pro Universidad Vasca" izan zen, idazkari nagusiak gogoratu duen bezala, eta bertan unibertsitate bat eskatzen zuen "gure kultura defendatzeko, eta hura behar eta nahi genuen helburu gorenen bidean jartzeko".

Beraz, Eusko Ikaskuntza sortarazi behar zuen batzar nagusi baten ideia Angel Apraizena izan zen, Bilbon eman zuen hitzaldi horretan azalduzkoa. Ideia zabaldu egin zen gero eta, euskal aldundien laguntza zela bide eta erakunde zein partikular askoren atxikimendu beroari esker.

Bere ibilbide pertsonalagatik, nazioarteko unibertsitateez zekiena aintzat hartuta, Apraizek eredu hau proposatu zuen: unibertsitate modernoa, zientifikoa, autonomoa, ikasleen beharrak erdian jartzen zituena, eta hiriburu batean ez ezik, euskal

lurralde osoan zabalduko zena. Eta gure gaurko unibertsitatea eredu horren isla da hein handi batean.

Eusko Ikaskuntzaren sorrera, beraz, erabakigarria izan zen euskal unibertsitatearen proiektu hura gorpuzten hasteko. Jakina denez, proiektua 1936an gauzatu zen, Medikuntza fakultatearen bidez. Dena den, handik hilabete gutxi batzuetara, frankismoa heldu eta berehala, debekatua izan zen, Eusko Ikaskuntzaren jarduera bera bezalaxe. Testuinguru horretan ageri zaigu, hain zuzen, gure unibertsitatea eta Eusko Ikaskuntza elkar lotzen dituen beste lotura handietako bat: askatasuna. Hain zuzen ere, bi erakundeek oinarri bera dute komunean: bien sorrera eta garpena askatasunari erabat lotuta egotea, askatasunik gabe, bata ez besteak, ez dutelako izateko arrazoirik, ez unibertsitateak, ez Eusko Ikaskuntzak.

Izan ere, erregimen frankistak euskal unibertsitatea suntsitu zuen, eta suntsitu zuen ere, Espainiako lurraldean behintzat, Eusko Ikaskuntza bera.

Hablamos, pues, de dos proyectos culturales y sociales estrechamente ligados: el de una sociedad de estudios vascos extendida a todos los territorios del euskera y el de una universidad pública vasca. Dos proyectos, como decía, solo posibles en un espacio de libertad, porque donde no había libertad, ni esa sociedad de estudios, ni esa universidad tenían la más mínima posibilidad de florecer.

Me parece muy importante subrayar esa vinculación de las dos instituciones entre sí y de ambas con la libertad, con un concepto claro y coherente de libertad.

Desde su fundación, Eusko Ikaskuntza consideró una prioridad la creación de la universidad vasca. La UPV/EHU, heredera de

la Universidad Vasca de 1936, y también de la Universidad de Bilbao de 1968, es el fruto de ese impulso colectivo, un impulso que instituciones públicas vascas y personalidades del arte y de la ciencia mantuvieron a lo largo del tiempo.

Eusko Ikaskuntza es, además, junto a Euskaltzaindia, una de las escasas entidades que extienden su trabajo a toda Euskal Herria, a todos los territorios del euskera: "Desde Zuberoa y Roncal hasta Carranza y Valdegovía", como expresó Jose Miel Barandiarán, otro de los más destacados intelectuales vascos del siglo XX y presidente también, en su momento, de la Sociedad de Estudios Vascos. Ese valor de una entidad cultural extendida a todos los territorios de nuestra lengua y nuestra cultura también hoy debe ser subrayado.

Iñaki Dorronsoro también ha hecho alusión a ese carácter de "elemento transversal", de "factor vertebrador", tan importante, que cohesionara y vincula pueblos y territorios.

Hoy, con este galardón, la UPV/EHU reconoce un siglo de esfuerzo y de trabajo a otra gran institución. Y este hecho no pretende anclarse en el pasado: es una invitación a mirar hacia adelante.

Una frase de un teólogo y filósofo de la Francia medieval, Surger de Saint-Denis, ilustra esta reflexión: "la memoria del pasado ya es una manifestación del futuro". Porque el futuro solo se puede construir a partir de lo construido en el pasado. Los nuevos escalones de esa larga y esperanzadora escalera que tenemos por delante se apoyan en los escalones anteriores.

En ese sentido, los cien años de trabajo de Eusko Ikaskuntza son solo el inicio de un camino. Y la parte más importante del camino es aquella que aún debemos recorrer.



En ese camino, por supuesto, la Universidad del País Vasco seguirá siendo una aliada y una compañera. Porque ambas instituciones, además, se hallan ligadas desde un punto de vista personal, desde un punto de vista humano. Son muchos los profesores, muchas las investigadoras, de la UPV/EHU que se han integrado en Eusko Ikaskuntza o que colaboran en alguno de sus proyectos. Una amplia representación de esas personas está también aquí, en este acto, y quiero extender nuestro reconocimiento a su trabajo, un trabajo activo y esforzado en pro de la cultura vasca, a través de la Universidad y a través de Eusko Ikaskuntza.

Hace tiempo escuché a uno de los descendientes de Carlos Santamaria, en este mismo edificio que erigimos en su homenaje, una frase de ese gran intelectual vasco y que se me quedó grabada: "Otros, seguramente, lo harían mucho mejor. Nosotros, en cambio, lo hacemos".

Comparto plenamente el espíritu que alienta esa sentencia: otros lo harían mejor, claro; pero nosotros, nosotros y nosotras, lo hacemos, lo estamos haciendo, y lo seguiremos haciendo en el futuro.

Y ese espíritu alienta, sin la más mínima duda, el lema que guía cada una de nuestras instituciones: ASMOZ ETA JARITEZ, Eusko Ikaskuntza, eta EMAN TA ZABAL ZAZU, Euskal Herriko Unibertsitatearen aldetik.

Beraz, mila, mila esker, Dorronsorora jauna, Eusko Ikaskuntza elkartearen kide guztiguztiok, zuen laguntzagatik euskal unibertsitatearen izatearen bidean. Eta zorionak, bene-benetan gaurko saria jasotzeagatik.

Zuei ere, mila esker zuen arretagatik eta, ekitaldi akademikoetan esaten dudan moduan, ez ahaztu:

Eman Ta Zabal Zazue.











eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea